

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar
Jose María Herce Isasmendi
Jose Angel Petralanda Gil
Aitor Urrutia Oianguren
Iñaki Madinabeitia Elorza
María Rosario Arcauz Arcauz
Jose Luis Cantero Morcillo

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamahiruko martxoaren 26an, arratsaldeko seiak eta erditan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Cantero jauna.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 26 de marzo de 2013 , en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beinat Herce Leceta ,con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste el Sr. Cantero.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

Jasotakoarekin ados egonik, 2012ko abenduaren 20an egindako osoko bilkurako akta onartu da.

Akta dela-eta, Urrutia jaunak galdu du ia erakunde adierazpeek ez duten behar udalatzarkide guztien aldeko bota.

Erantzun zaio gaia aztertuko dela eta jakinaraziko zaiola.

2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.

2013ko martxoaren 22ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

Berariaz jakinarazi dira ondoren transkribatzen diren erabakiak, eta baita espediente bakoitzari buruz idazkari-kontuhartzaleak egindako txostenak ere.

ALKATEAREN ERABAKIA B13/00228 zenbakiduna.(2013KALI001)

Idazkari-kontuhartzaleak osatu duen Eskoriatzako Udaleko 2012ko Aurrekontuaren likidazioa eta horren dokumentuak aztertu ondoren, eta beraiekin ados egonik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/ 2003 Foru Arauak emandako eskumenak erabiliz, honako hau

ERABAKI DUT

Lehena.- *Udalaren 2012ko Aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:*

| | |
|--|--------------|
| 1.- Diruzaintzako fondo likidoak, 2012-12-31n: | 472.604,64 |
| 2.- Koblatu gabeko saldoak, 2012 -12-31n: | 2.764.833,28 |
| Aurrekontuko zordunak: | 568.859,53 |
| Aurrekontuz kanpoko zordunak: | 2.195.973,75 |
| - Aplikatu gabeko kobraintzak: | |
| 3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2012-12-31n: | 622.3737,09 |
| Gastuen aurrekontuko hartzekodunak: | 349.492,08 |
| Sarreren aurrekontuko hartzekodunak: | 272.881,01 |
| Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak: | |
| - Aplikatu gabeko ordainketak: | |
| 4.- Diruzaintzako soberakin gordina (1+2+3): | 2.615.064,83 |
| 5.- Saldo kobragaitzak: | 323.698,08 |
| 6.- Diruzaintzako soberakin likidoa (4-5): | 2.291.366,75 |
| 7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako soberakina: | 206.403,88 |
| 8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako soberakina (6-7): | 2.084.962,87 |
| 9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza: | 215.379,25 |
| 10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza: (-) | 1.655,13 |
| 11.- Doiketak, diruzaintzako soberakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik | 736.256,95 |
| 12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik: | (-) 1.602,33 |
| 13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12): | 948.378,74 |
| 14.- Txerta daitezkeen kreditu soberakinak: | 985.005,51 |
| 15.- Txertatu ezin diren kreditu soberakinak: | 381.234,40 |

16.- Kreditu soberakinak, guztira (14+15): **1.366.239,91**
Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak 49.5 artikuluan jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzarrari dekretu honen berri ematea hurrengo bilkuran.

Eskoriatza, 2013ko martxoaren 18an.

Alkatea

ALKATEAREN ERABAKIA

ZENBAKIA: B13/00229

DATA: 2013/03/18

GAIA: KREDITU ALDAKETA: TXERTAKETA (inkorporazioa)

ESPEDIENTEA: 2013KKRI0001

Eskoriatzako Udalaren 2013ko Aurrekontuan kreditu aldaketa espedientea tramitatu da, aurreko urteko Aurrekontuko kreditu soberakinak txertatzeko.

Aipatutako espedientea aztertu ondoren, Hazienda eta Kontuen batzordeburuak egindako aldeko txostenetako eta onespen proposamena ere aztertu ditugu, eta baita espedientearen egindako gainerako jarduketako ere.

Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 32.6. artikuluan kreditu txertaketa onesteko ematen dizkidan eskumenez baliatuz, Alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

Bat.- 3 zenbakidun kreditu aldaketa espedientea onartzea -aurreko ekitaldiko aurrekontuko soberakinak 2013 ko Aurrekontuari txertatzeari buruzkoa-, ondorengo kapitulu laburpen honen arabera:

GASTUAK-GEHIKUNTZAK

| Kap. | Izena | Euroak |
|----------------------------------|--|--------------|
| 1 | Pertsonalaren gastuak | |
| 2 | Ondare arruntak eta zerbitzuak erostea | 54.320,45 € |
| 4 | Transferentzia arruntak | 7.976,30 € |
| 6 | Inbertsio errealak | 697.081,24 € |
| 7 | Kapital transferentziak | |
| 8 | Aktibo finantzarioak | |
| 9 | Pasibo finantzarioak | |
| TXERTATUTAKO SOBERAKINAK GUZTIRA | | 759.377,99 € |

SARRERAK-FINANTZAKETA

| Cap. | Denominación | Euros |
|-----------------------------|--|--------------|
| 7 | Kapital tranferentziak. | 4.228,00 € |
| 8 | Aktibo finantzarioak. Diruzaintzako soberakina | 755.149,9 €9 |
| KREDITU TXERTAKETAK GUZTIRA | | 759.377,99 € |

Bi.- Egintza hau irmoa eta betebeharrezkoa da, bestelako tramite barik; beraz, Fondoen Kontuhartzaitza zerbitzuek, onartutako aldaketa Kontabilitatean sartu beharko dute berehalako ondorioekin, sarreretan zein gastuetan.

Eskoriatza, 2013ko martxoaren 18a. ALKATEA

ALKATEAREN ERABAKIA

ZENBAKIA: B13/00233

DATA: 2013/03/20

GAIA: KREDITU ALDAKETA.ZKIA:4. GEHIGARRIAK

ESPEDIENTEA: 2013KKRA0003

INTERESDUNA: ESKORIATZAKO UDALA

GAIA: *Kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako 4 zenbakidun expedientea onartzea*

UDAL honetako Aurrekontuari eragiten dion Kreditu Gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako expedientea ikusita.

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEAK egindako txostenak dioenez, aipatutako expedientea aplikagarria zaien araudiai egokitzentzen zaio, eta zehazki Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikulan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Aurreko guztia kontutan izanik, eta Foru Arauaren 34.3 artikulan eta 2013ko ekitaldirako onartutako Aurrekontua Gauzatzeko Arauaren 6-1 artikulan jasotako eskumenak erabilta, Alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DA

Lehena.- UDAL honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion Kreditu Gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako expedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

| Kapituluak | Izena | Gehikuntzak |
|-------------------------------|---|--------------------|
| 2 | Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketa. | 45.857,43 € |
| 4 | Transferentzia arruntak | 36.667,00 € |
| 6 | Inbertsio errealkak. | 59.557,17 |
| GEHIKUNTZAK GUZTIRA... | | 142.081,60 |

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

| Kapituluak | Izena | GEHIKUNTZAK |
|-------------------|------------------|---------------------|
| 8 | Finantza Aktiboa | 142.081,60 € |
| GUZTIRA | | 142.081,60 € |

Bigarrena.- Udal Batzarrari hurrengo bileran erabaki honen berri ematea.

Eskoriatzan, 2013ko martxoaren 20ean. ALKATEA

3.- 5. KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA. KREDITU GEHIKUNTZAK

Kredituak aldatzeko 5. expedientea irakurri da. Kreditu aldaketa hori kreditu gehigarri bidez egingo da eta eragina du Udal honetako aurrekontuan.

Idazkari-kontuhartzailak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako expedientea aplikagarri zaion araudiarri egokitzentzen zaiola, hain zuen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Idazkari-kontuhartzailak egindako txostena eta HAZIENDA OGASUN BATZORDE INFORMATZAILEAK egindako onarpen proposamena ikusirik, proposamena bototara jarri da.

Urrutia jaunaren abstentzioarekin eta bertaratutako gainerako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- UDAL honetan indarrean dagoen ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehikuntza bidez kredituak aldatzeko 5. expedientea onartzea, egindako proposamenaren eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera:

| PARTIDA | IZENA | HASIERAKO KREDITUA | GEHIKUNTZA | AMAIERAKO KREDITUA |
|--|---|--------------------|-------------------------|------------------------------|
| 0101.601.511.00.01 0102.601.511.00.04 | ARANA-GAZTAÑADUI MUGI-ZERBI.HOBEKUNTZA ERDIKO KALEAREN PEATONALIZAZIOA | 6.000,00 - | 153.000,00 21.780,00 | 159.000,00 21.780,00 - |
| GUZTIRA | | 6.000,00 | 174.780,00 | 180.780,00 |

| Sarreren kontzeptuak edota gastuen partidak | Baliabidearen kontzeptua (11) | Sarrera handiagoak / gastuetako bajak | Baliabidearen partziala |
|---|--|---------------------------------------|-------------------------|
| 0201.870.000.00.01 | Diruzaintzako gerakina:kreditu gehigarriak | | 174.780,00€ € |
| GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA | | | 174.780,00€ |

Bigarrena.- Jendaurrean jartzea hamabost egunez nahi duenak erreklamazioak aurkez ditzan. Erreklamaziorik ez balego, erabaki hau behin betiko bihurtuko da, eta espediente honi Aurrekontu Orokorra onartzeko ezarritako gainontzeko tramite berak egin beharko zaizkio.

4.- IDAZKARITZA-KONTUHARTZAILTZAKO TXOSTENA

Bertaratutako udalbatzarkide guztiak ondorengo KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEEI buruz kontuhartzailak egindako txostenaren berri izan dute.

- Nº 3. MODALIDAD: INCORPORACION DE CRÉDITOS.(Aprobado R. Alcaldía, nº 229, de fecha 18 de marzo de 2013)
- Nº 4. MODALIDAD CREDITOS ADICIONALES. (Aprobado R. Alcaldía, nº 233, de fecha 20 de marzo de 2013).
- Nº5 MODALIDAD CREDITOS ADICIONALES.(Inicio aprobación, Pleno de fecha 26 de marzo de 2013).

Idatzita jasota gelditu dadin, aipatutako txostenaren KONKLUSIOAK izeneko zatia transkribatzen da ondoren.

Aztertu diren kreditu aldaketa espidenteak onartuta, 2013rako jarritako finantziraunkortasun helburua betetzen da, eta ez dira betetzen aurrekontu egonkortasun eta gasto arau helburuak. Beraz, Eskoriatzako Udalarena behartuta dago ekonomia eta finantza plan bat onartzera. Plan hori Udalbatzarrari aurkeztu beharko zaio, gehienez ere hilabeteko epean lehen aipatutako kreditu aldaketa espidenteak onartzen direnetik kontatzen hasita, horrekin, urte betean bete ahal izateko aurrekontu egonkortasun eta gasto arau helburuak.

5º.- GAI ZERRENDAN HAINBAT GAI SARTZEA BERRESTEA.

Bertaratutako udalbatzarkide guztiak aldeko botoekin, ondorengo gai hauek gai zerrendan sartzea berretsi da:

1. SANTA ANA KOMENTUKO KAPERA –ZALDIBAR ANTZOKIA- GIZARTE ETA KULTUR ERABILERETARAKO BIRGAITU ETA EGOKITZEKO 2. FASEKO PROIEKTUAN AURREIKUSITAKO OBREN 2. ZIURTAGIRIA ONARTZEA.
2. “SANTA ANA” 12 HIE-KO ARAU SUBSIDARIOEN BIGARREN ALDAKETAREN ESPEDIENTEA JANDEAURREAN EGOTEKO EPEA LUZATZEA.
3. TELESKO UDAL TELEBISTAKO JUNTARAKO KIDEAK IZENDATZEA.

6.- SANTA ANA KOMENTUKO KAPERA –ZALDIBAR ANTZOKIA- GIZARTE ETA KULTUR ERABILERETARAKO BIRGAITU ETA EGOKITZEKO 2. FASEKO PROIEKTUAN AURREIKUSITAKO OBREN 2. ZIURTAGIRIA ONARTZEA.

Udalbatzarrak, 2012ko uztailaren 19an egindako bilkuran, SANTA ANA KOMENTUKO KAPERA –ZALDIBAR ANTZOKIA- GIZARTE ETA KULTUR ERABILERETARAKO BIRGAITU ETA EGOKITZEKO 2. FASEKO proiektuan aurreikusitako obren exekuzioa GOITU ERAIKUNTZAK S.L. enpresari esleitzea erabaki zuen. Esleipena 409.830,84 eurotan (BEZ gabe) egin zen.

GOITU ERAIKUNTZAK S.L. enpresa kontratistak obren 2. ziurtagiria aurkeztu zuen 2013ko martxoaren 1ean.

Obra zuzendaritzak ziurtagiri horren aldeko txostena egin du.

Aurrez esandakoan oinarrizut, eta bertaratutako zinegotzi guztiak aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- SANTA ANA KOMENTUKO KAPERA –ZALDIBAR ANTZOKIA- GI-ZARTE ETA KULTUR ERABILERETARAKO BIRGAITU ETA EGOKITZEKO 2. FASEKO proiektuan aurreikusitako obren 2. ziurtagiria onartzea. Ziurtagiri horren zenbatekoa 44.068,47 eurokoa gehi BEZaren % 21ari dagokion 9.254,38 euro da.

Bigarrena.- Ordainketa agintza 0101.622.451.92.01.12 partidaren kontura.

7.- “SANTA ANA” 12 HIE-KO ARAU SUBSIDIARIOEN BIGARREN ALDAKETAREN ESPEDIENTEA JENDAURREAN EGOTEKO EPEA LUZATZEA.

Udalbatzarrak, 2013ko otsailaren 26an egindako bilkuran, besteak beste, ondorengo erabakiak hartu zituen:

Juan Manuel Saez Iturrioz arkitekto jaunak Eskoriatzako Udalaren eskariz idatzitako “Santa Ana” 12 HIEri buruzko Eskoriatzako arau subsidiarioen bigarren aldaketa puntualaren dokumentua hasiera batean onartzea.

Dokumentu hori jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia jarriko da jakinarazteko espedientea HILABETE BATEZ edozeinen esku egongo dela aztertu eta, hala gura izanez gero, alegazioak jartzeko. Halaber, iragarkia gehien saltzen den egunkarietako batean ere jartzea.

Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2013ko martxoaren 8an, eta beraz, jendaurrean egoteko epea 2013ko apirilaren 8an amaitzen da.

Kontuan izanik jendaurrean egoteko epe horretan Aste Santuko oporrak direla, egoki-tzat jo da alegazioak jartzeko epea luzatzea.

Aurrez esandako guztiarengatik, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Juan Manuel Saez Iturrioz arkitekto jaunak Eskoriatzako Udalaren eskariz idatzitako “Santa Ana” 12 HIEri buruzko Eskoriatzako arau subsidiarioen bigarren aldaketa puntualaren dokumentuaren hasierako onarpenerari alegazioak jartzeko epea datorren apirilaren 15eko 13:30era arte luzatzea.

8.- GIZARTE ZERBITZUETAN DIHARDUTEN ELKARTEENTZAKO DIRU LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK ONARTZEA. 2013

Udalbatzarkide guztiekin ezagutzen dituzte onartu daitezen Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak proposatzen dituen oinarriak.

Bozkatu ondoren, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI du:

Lehenengoa.- Beraien jarduera gizarte zerbitzuetan garatzen duten elkarteentzako diru laguntzak emateko oinarriak onartzea. 2013

Bigarrena.- Oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 lanegunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak oinarriak aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.

Hirugarrena.- Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, OINARRI horiek behin betiko onartutzat joko dira bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

Laugarrena: Alkate jaunari ahalmena ematea oinarriak onartu ondoren bertan araututako diru laguntzearako deialdia egiteko eta dagokion gastua baimentzeko.

9.- TELESKO UDAL TELEBISTAKO JUNTARAKO KIDEAK IZENDATZEA.

Udal talde politikoetako bozeramaleek egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, Telesko Udal Telebistako zuzendaritzako juntako kide ondorengo zinegotziak izendatzea erabaki du:

- * **EAJ-PNV Eskoriatzako udal taldea:** Aitor Urrutia Oyanguren
- * **BILDU-Eskoriatza.** Jose Angel Petralanda Gil
- * **Eskoriatzako Elizateen Elkartea.(E.E.E.):** Iñaki Madinabeitia Elorza
- * **Socialistas Vascos:** José Luis Cantero Morcillo

Eskoriatzako Ezkerra taldearen idatzizko proposamenaren faltan, eta talde horretako bozeramalea bilkurau ez dagoenez, hurrengo bilkurarako gelditzen da ordezkaria izendatzea.

10.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA EMATEKO ZERBITZUAREN KONTRATUA LUZATZEA.

Udalbatzarrak 2010eko abenduaren 21ean egindako osoko bilkuran hartutako erabakiz, etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kudeaketa GIZADI ELKARTEA enpresari esleitu zitzaison behin behinekoz. Alkateak 2010eko abenduaren 30ean hartutako erabakiz, behin betiko esleipena eman zitzaison.

Sinatutako kontratuaren eta administrazio baldintzen agiriaren arabera, kontratuaren iraupena BI URTEKOIA zen 2011ko urtarrilaren 1etik kontatzen hasita, eta urtero luzatzeko aukera aurreikusten zen, gehienez ere lau urtera arte, betiere, aldeetako batek ez bazuen kontratua salatzen kontratua amaitu baino gutxienez hiru hilabete lehenago.

Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatzaileak egindako proposamena ikusita, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Etxez etxeko udal zerbitzua emateko GIZADI ELKARTEARI esleitutako kontratua 2013ko abenduaren 31ra arte luzatzea.

11.- TIBETEKO HERRIAREN GIZA ESKUBIDEEN ETA ASKATASUNAREN ALDEKO PROPOSAMENA.

Gizarte Zerbitzuetako batzordeak ondorengo erabaki proposamena egin du:

Tibetek Txinakoaren bestelako nortasun nazional, kultural eta erlijiosoari eutsi dio historian zehar. Herrialde independentea zen, estatu ugarik de facto aitortutakoa, Txinak 1949an inbaditu zuen arte. Orduz geroztik Tibet lurralte okupatu bat da nazioarteko zuzenbidearen

ditu zuen arte. Orduz geroztik Tibet lurralteko okupatu bat da nazioarteko zuzenbidearen eta Nazio Batuen ebazenen arabera.

1949ko inbasioaren ondoren, krudeltasun itzeleko hainbat hamarkada izan dira, non indar okupatzaleek herri tibetarra eta herri hau identifikatzen duen guzia suntsitu nahian aritu diren, sarraskiak eginez, torturatuz, gartzeleratuz, desagertaraziz eta ia denak antzutuz eta beraien ondare kulturala eta ekologikoa indarrez ebatsiz eta suntsituz. Herri tibetarrak bere Holokaustoa sufritu du eta basakeria honen oroigarri dira 1.2 milioi biktima.

Errepresioa, okupazio militarra, bir-heziketa patriotiko kanpaina gogorrak, exekuzio sumarioak, "ama China"ren aurkako manifestazioak egiteagatik emandako heriotza zigorrak eta poliziaren etengabeko jazarpena jasaten duten arren, emakume eta gizonezko tibetarrek egunero salatzen dute beraien giza eskubideen urratze sistematikoa, setio-egoera eta aldarrikatzen dute BERE HERRIARENTZAKO ASKATASUNA ETA DALAI LAMAREN itzulera.

Ezkutuko erresistentziak kaleak hartu ditu, hamarkada hauetan hainbatetan nazioarteko komunitatearen arreta deitzu. Lehenengo protestak Lhasan izan ziren, larogeiko hamarkadan eta horien ondorioz, ia belaunaldi oso bat gartzeleratua izan zen Tibeteko hiriburuan. Berriki, 2008an Beijing-en ospatu ziren Joku Olinpikoak zirela eta, mundu osoko komunikabideek zabaldu zituzten Amdo eta Kham probintzia historikoetan zehar egiten zituzten protestak, su eta garisilarazi zituztenak.

Hala ere, milaka ikasle, nekazari eta nomadak jarraitzen dute modu baketsuan manifestatzen haien bakarkako eta taldeko eskubideen alde, besteak beste, hezkuntzan hizkuntza tibetarra erabiltzea aldarrikatuz, populazio nomadaren indarreko birkokalekuaren amaiera eskatuz, errekurso naturalen espoliazioa bukatzeko eta ekosistema tibetar ahularen aldeko errespetua eskatuz. Berriro ere agintari txinatarren erantzuna gogorra da, leku konfliktiboenetara ejertzitoa bidalita, atxiloketa ugari, desagertzeak eta segurtasun indarren aldetik erabateko bortizkeria erabiliz, pertsona anonimo nahiz nazioarteko kazetariekin filtratu dituzten ezkutuko grabazioetan ikus daitekeen bezala.

Dena den, 2009tik gizonezko eta emakumezko gazte tibetarrak ari dira beste mota bateko protestak egiten, denetik gogorrenetako dena, auto-immolazioa, alegia. Gaurko egunera arte (2013/02/10) konfirmatuta dauden 99 kasuek, horietatik 83 izan dira 2012 urtean, adierazten dute agintari txinatarrek ia 7 milioi tibetarren aldarrikapenak aintzat ez hartzeaz gain, gogortzen ari direla zapalkuntza, diskriminazioa eta herri honen eskubideak eta oinarrizko askatasuna urratzen.

Presazkoa da. Isileko genozidio hau gelditu egin behar da, oraindik garaiz gaude. Nazioarteko komunitateak, giza eskubideen eta munduko bakearen aldeko sustatzaile den **aldetza**, koordinatu zehatzak bideratu behar ditu gobernu txinatarrek bere politika alda dezan, bermatzeko herri tibetarraren eskubideak bereziki eta herri txinatarrenak, orokorrean.

HORREGATIK

1. Eskoriatzako Udalak Eusko Jaurlaritzari eta Estatuko Gobernuari eskatzen die Europar Parlamentuaren 2000ko uztailaren 6ko ebazenaren ildoei jarraitzeko, non "*gobernukideei eskatzen zaien aintzat hartzeko, zinez, erbestean dagoen gobernu tibetarra Tibeteko herriaren ordezkarri legitimotzat aitorzeko aukera, baldin eta hiru urteko epean Pekingon agintariekin eta erbestean dagoen Gobernu tibetarrak ez badute akordiorik lortu, Nazio Batuen idazkari nagusiaren zaintzapeko negoziazioen bitarbez, Tibetentzako estatutu berri bat adosteko*". Eta aitorru dezala erbestean dagoen Gobernu tibetarraren zilegitasuna Tibeteko herriaren ordezkarri gisa; izan ere, gaur-gaurko, Txinako Gobernuak ez du akordio bat lortzeko borondate politikorik erakutsi.

2. Eskoriatzako Udalak Eusko Jaurlaritzari eta Estatuko Gobernuari eskatzen die dagozkion guneetan sustatu ditzatela Txinako Gobernuaren eta erbestean dagoen Gobernu tibetarraren

arteko negoziazioak, horrela, Tibeteko herriari esparru guztietau autonomia osoa bermatuko dien akordioa lortzen laguntzeko, esparru politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalean, defentsa-politikaren eta kanpo politikaren salbuespenekin.

3. Eskoriatzako Udalak Eusko Jaurlaritzari eta Estatuko Gobernuari eskatzen die giza eskubideek Tibeten duten egoerari buruzko gaia sartzeko beren agendetan, etorkizunean Txinako agintariekin izan ditzaketen topaketetarako.

4. Eskoriatzako Udalak Estatuko Gobernuari eskatzen dio berehala erantzuteko Europar Legebiltzarraren 1998ko urtarrilaren 16ko eta 2002ko apirilaren 11ko ebazpenei, eta, beraz, babesteko EBren ordezkari iraunkor bat izendatzea, Tibeterako europar politika diplomatikoa koordinatuko duena.

Hitz egiteko txanda irekita, honako hauetako hitz egin dute:

Cantero jauna: mozioaren alde bozkatuko dugu, erakundeen legezkotasunari zorrotz lotzen baita eta egoera korapilatsua bideratu gura baitu -hain zuzen ere, Txinaz ari baikara, gatazkako parte den herrialdetako bat- bide baketsu eta diplomatikoen bidez. Beraz, hori da moziaren alde egiteko arrazoia, eta espero dezagun nazioarteko erakundeei egiten diogun dei hau ez dela hutsean geldituko eta aurrera egin ahal izango dugula Tibeteko arazoari irtebide justua emateko bidean.

*Urrutia jauna: guk alde bozkatuko dugu, uste dugulako Tibet nazio bat dela, eta nazio bat den unetik burujabetzarako eskubidea duela. Eta dirudienez, gaur egun, posible ez denez Txinarekin konponbide batera iristea, beste nazio askoren moduan, erabakitzeko eskubidea eta bere lurraldea antolatzeko eskubidea izan behar duela. Ikusiko dugu gauzak nola joango diren aurrerantzean, baina, gure botoa hori bakarrik izan daiteke.

Alkatea: gu ados gaude Jose Luisek eta Aitorrek esandakoekin, eta guk ere alde bozkatuko dugu. Uste dugu tibetarrak eurak direla erabaki behar dutenak zer nahi duten Tibetentzako, eta nazio bat izatea gura baldin badute beraiei dagokie erabakitzea.

Eztabaidea amaituta, bozkatu egin da, eta Madinabeitia jaunaren eta Arkarazo andrea-ren abstentziaorekin, eta bertaratutako gainontzoko udalbatzarkideen aldeko botoekin, Udalbatzarrak adierazpena onartu du.

12.- EZKER ANITZA-IUK AURKEZTUTAKO MOZIOA ADMINISTRAZIOEN ARRAZIONALIZAZIOARI ETA IRAUNKORTASUNARI BURUZKO LEGEAREN AURREPROIEKTUARI BURUZ..

Merino jauna, EZKER ANITZA-IUKo ordezkaria, ez dagoenez, Alkateak mozioa aztertu gabe lagatzea eta datorren bilkuraren eztabaideatzera proposatu du.

Proposamena aho batez onartu da.

13º.- MOCION PRESENTADA POR BILDU EN RELACIÓN A 197/2006 DOKTRINA: ZIGOR GEHIGARRIAREN ANKERKERIA.

Alkate jaunak ondoren osorik transkribatzen den mozioaren xedapena irakurri du:

197/2006 DOKTRINA: ZIGOR GEHIGARRIAREN ANKERKERIA

2006ean, Spainiako Auzitegi Gorenak, kode penal zaharrean epaituriko presoek zegozkien erredentzioak, kode hark ezartzen zuen bete beharreko gehienezko 30 urteei baino, ezarritako kondena osoari aplikatzeko doktrina ebatzi zuen. Hau da, 1973-ko kode penalak, kondena kunplitzeko gehienezko urte kopurua 30 urteetan ezartzen zuen eta erredentzioen bidez, bete beharreko urte kopurua jaisten zen. Erredentzioen aplikazioak bete beharreko kondena 15 urtetan ezartzen zuen automatikoki, eta horrez gain, erredentzio gehiago eskuratu zitezkeen ikasketekin edo bestelako jarduerekin, bete

gain, erredentzio gehiago eskuratu zitezkeen ikasketekin edo bestelako jarduerekin, bete beharreko kartzelaldi denbora jaitxiz.

1995ean eta 2003an kode penalean aldaketak eman ziren. Aldaketa horiek euskal presoen aurkako neurriak gogortzena bideraturik zeuden, preso diren pertsonei dagozkien eskubideak salbuespenez murritzuz. 95-ean kondena betetzeko urte mugak 30, 25 eta 20 urteetan ezarri, eta erredentzioak desagertu egin ziren. 2003-an berriz, kondena betetzeko muga 40 urtera igo zen.

Kode penal berriak ezarritako neurriak ez direnez erretroaktiboak, hau da, ezin direnez aplikatu aurretiaz epaituriko pertsonen aurka, Auzitegi Gorenak 197/2006 doktrina erabili zuen ateratzean zeuden euskal presoei kondena luzatzeko.

Ordutik hona, 83 euskal preso politikori ezarri zaie doktrina. Horietako 12, garaian ezarritako kondenaz gain doktrinaren kondena luzapena bete ostean atera dira kalera. Gaur egun, 67 dira doktrina hau aplikaturik kartzelan aurkitzen diren presoak. Horietatik 54 kondenaren luzapena ari dira betetzen, eta beste 13-ri doktrina aplikatu zaie ezarri zitzaien kondena bete aurretik. Beste 4 lagun kalean daude, baina doktrina ezarria dute.

Doktrina honen bidez, euskal presoen aurka bizi arteko zigorra aplikatzen da. Ondorioak aski krudelak dira, 95 izanik 20 urte baino gehiagoko espoxealdiak igaro dituzten pertsonak. Gaur egun 29 presoak 25 urte baino gehiago daramazkite espoxean. Neurri honek, oinarrizko giza eskubide denak urratzen ditu. 20 urtetik gora espoxean emateak itzuliezinak diren ondorio fisiko eta psikologikoak dakartzala frogatua dago.

ESPAINIAKO AUZITEGI KONSTITUZIONALAREN EBAZPENA 197/2006 DOKTRINARI BURUZ

2012an Auzitegi Konstituzional espanyolak, 2006an indarrean jarritako doktrinaren kontrako helegiteak ebatzi ditu, doktrinaren aplikazioa babestuz. Bere ebazpenean ez du doktrinaren funtsari buruzko azalpenik ematen eta irizpidea aldatzeko aukera, tribunalei dagokiela argudiatzen du.

Auzitegi Konstituzionalak, 47 erabaki jakinarazi ditu (beste 20 kasu erabakitzeko). Horietatik 3 tramitera hartza ukatuak izan dira, 22 tramitera onartuak, eta beste 3ren kasuan anparoa onartua izan da, hiru preso hauek kalera atera direlarik. Beste 19 kasu ukatuak izan dira.

ESTRASBURGOKO GIZA ESKUBIDEEN TRIBUNALAREN EBAZPENA

Estrasburgoko Giza Eskubideen Tribunalak ordea, Ines Del Río euskal presoaren kasuan oinarritutik, 197/2006 doktrina ez legezkoa eta oinarrizko eskubideen aurkakoa dela ebatzi zuen 2012ko uztailaren. Ebazpena, AHO BATEKOIA izan zen.

Tribunal honen ebazpenak, doktrinak, askatasunerako eta segurtasunerako oinarrizko eskubideak urratzen dituela dio, eta ez dela legezkoa aurrez ezarritako zigorra luzatzea. Ines del Río presoa berehalako aske uztea eta 30.000 eurorekin kalte moralak berrezartzea ebazten du era berean.

Ebazpenaren eragina ez da Inesen kasura mugatzen, doktrinaren funtsa aztertu ondoren eta berau jotzen bait du, ez legezko. Horrek doktrina bera, bertan behera uzteko bidea zabaltzen du; formalki Espainiar gobernuaren esku dagoen erabakia da hori.

Edonola ere, Ines del Ríoren inguruko ebazpena LOTESLEA DA, Europako Giza Eskubideen Konbentzioaren 46. artikuluak, ESTATUAK GORTEAREN EBAZPENAK ONARTZERA BEHATZEN BAIT DITU.

Espainiako Estatuak helegitea tarteratu du. Helegite hau, Estrasburgoko Giza Eskubideen Tribunalean berrikusiko da datorren martxoaren 20. Tarte horretan Ines del Rio kartzelan mantentzera ere, espainiar estatuak egiten duen beste lege-hauste bat gehiago da.

Estatu batek Estrasburgoko Tribunalaren ebazpen bat ez onartea eskandalu politiko eta juridiko izugarria da. Espainiar estatuak gai honen aurrean duen jarrerak agerian uzten du euskal presoen aurka salbuespeneko legedia eta bitartekoak aplikatzen direla. Presoek eta beraien senitartekoek dituzten eskubideak urratuz eta nazioarteko Giza Eskubideen Arauen gainetik pasaz.

Honen aurrean, Eskoriatzako Udalak honako erakia hau hartzen du:

1.- 2012ko uztailean, Estrasburgoko Giza Eskubideen Tribunalak, aho batez, Spainiako Auzitegi Konstituzionalaren 197/2006 doktrina (Parot doktrina gisa ezagutu dena), ez legezkoa eta oinarrizko eskubideen aurkakoa dela ebatzi ondoren, berau bertan behera uzteko eskatzen du udal honek. Ondorioz eta nazioarteko giza eskubideen legeria aplikatuz, 197/2006 doktrina aplikatu zaien euskar preso guztiak berehalakoan aske uzteko eskatzen dugu.

2.- Euskal Herrian bizi dugun itxaropen eta konponbide aukeraren aurrean, euskar presoen aurkako salbuespeneko legeria bertan behera uzteko eskatzen du udal honek.

3.- Ebazpen honen berri, herritarrei eta Europako Kontseiluko Giza Eskubideetarako Komisionatua den Nils Muiznieks Jaunari ematea erabakitzentz da.

Hitza eman ondoren, ondorengoeik hitz egin dute:

Cantero jauna: eztabaidatzeko eta onar dadin BILDUk aurkeztutako mozioaren edukiak, gure ustez, Udal honen jardueraren eta eskuduntzen eremua gainditzen du. Parot doktrina deiturikoa, inolako legedia ez dena, baizik eta Auzitegi Gorenak 1995eko Kode Penala baino lehen atentatu terroristengatik zigortutako presoei zigor denbora kontatzeko moduari buruz egiten duen berrinterpretazioa. Gari juridiko zaila da, ezin dena bideratu udalbatzar honetan. Horren proba da eztabaidak sortzen ari dela adituen eta epaileen artean, eta Auzitegi Konstituzinalak berak bertara errekurritu zuten preso batzuei babesa eman diela, eta ez dituela onartu beste errekurtsa batzuk. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak berak lehen instantzain Ines del Rio presoaren aldeko epaia eman zuen 2012ko uztailean, baina, Spainiako gobernuak erabaki horri errekursoa jarri dio Estrasburgoko auzitegiko salan, eta sala hori gai hori auziaz arduratzen hasi zen joan zen martxoaren 20an.

Momentu honetan behin betiko jarrera zein izango den zain gaude, hurrengo hilabetetan emango dela uste dudana, guk, gure ikuspuntutik, Auzitegiari esan beharrik gabe zer egin behar duen. Badirudi aukera gehien dagoela, aurrez aho batez zentzu horretan erabaki delako, lehengo erabakiaren alde egiteko. Baino, gu ez gara sartu behar eta ez dugu presionatu behar organo judizial hori; bere epaiaren zain geldituko gara, epaia onartuko dugu, eta erabaki horrek guztioi lagunduko digula egin beharreko bidean, berraskidetze, bake eta bizikidetza bide den horretan. Eta espero dezagun erabakiak laguntzea aurretik dugun bidean, izan ere, bide neketsua da, zauri asko sendatu beharko direnak, azken 50 urteetan izan diren gertaera oso latzak argitu; eta beraz, lasaitasunez, patxadaz, eta askotan baita gure jarrerarekiko ulertzintasunarekin ere, nahiz eta hemen arraroa iruditu, baina, Espainiako gainerako lekuetan ulertuak izateko arazo asko sortzen diguna. Hori horrela izanik ere, errespetatu, onartu eta ontzat hartuko dugu, baina, batez ere espero dezagun baliagarri izatea, eta batez ere, euskar herritarroi baliagarri izatea arazo hau konpontzeko, ordua da-eta. Eta, guk, kontra bozkatuko dugu.

*Urrutia jauna: gure botoa aldekoa izango da. Eta, aldekoa izango da, uste dugulako mundu guztiak dituela eskubideak, baita presoek ere. Eta presoak diodanean, mozio hau aurkeztu dutenek ez dakit horrela egin duten, baina, nik, preso guztiak ditut gogoan, eta ETAko presoetaz gogoratzen naiz, eta gainerakoetaz. Kontuan izanik abokatu batek defendatu duena Estrasburgo, esan duenean prezio berean aterazen dela pertsona 1 hiltzea edo 20 hiltzea, uste dut horrek ere eragina duela ETAkoak ez diren presoengan. Gizarte bat antolatzen denean, zuzenbide penala mendekurako tresna dela jotzen duenak boto asko irabaz dezake. Normalean, zigor arlotik epaitzen diren kasuek sumindura handia sortzen dute, eta ETAren hilketak ere sumindura hori sortzen dute. Baino, Zuzenbide Estatu Demokratiko batean benetan sinisten baldin badugu, ez lirateke horrelako praktikarik gertatu behar, edo duela denbora asko gaindituta egon beharko lirateke bergizarteratzean sinisten duen sistema batekin. Hala ere, ez dirudi horrela denik Europatik datorren epaia ez betetzeko ingenieria juridiko guzia erabiliko duela esaten duen ministro batekin. Aitzitik, Parot doktrinari buruz Europatik datozen epaien alde bozkatu arren edo mozioen alde, horrek ez du esan nahi preso horiek egin dutena justifikatzen dugunik. Egin zuenak ez du justifikaziorik, nahiz eta arrazoi

politikoen izenean egin; eta egindakoaren erantzule beraiek dira, presoak; eta ikuspuntu politikotik, gora ETA militarra! ETA, matalos! babestu zutenak. Aurreko puntuaren zalatzen den Espainiako gobernuaren hankasartzea, eta baita beste hankasartze batzuk ere (sakabanaketa, ilegalizazioak, nazio arazoez ez hitz egiterik nahi...) ez dute justifikatzen ETAK egindakoak. Besteok ez dugu inolako errurik ETAK egindakoaz. Eta, kontuan izanik, ETArekin izandako elkarritzetan edo beraien jarrera onartzen zela edo, bestela, hildakoak jartzen zituztela mahaigainean, arrazoi bezala alegatza elkarritzearako politikoen gogo eza, hori defendatzen duenaren deskripzio morala izateaz gain, fase politiko honetan argudio seriorik ez izatearen adierazle da. Gu ez gaituzte eramango sufrimenduaren gizarteratzetik gizartearen errura, ezta fase politiko berri baten izenean ere. Fase politiko berria ezin delako oinarritu gertatutako guztiaren ahanzturan, ezta eskubideen urraketan ere. Zerbaitetan oinarritu behar baldin bada, oinarri etiko bateratuan da, bakoitzা nondik datorren eta nora doan jakinda. Horregatik, ez dugu justifikatzen inongo eskubide urraketarik, eta herri honen oraina eta etorkizuna inolako eskubideen urraketan ezin dela oinarritu uste dugulako, mozio honen alde bozkatuko dugu.

* Alkate jauna: guk aurkeztu dugu eta moziaren alde bozkatuko dugu. Egin diren aipamen edo komentarioren batzuk eztabaidearako gai izan daitezke, eta alde guztieta begiratu beharko litzateke. Horietako batzuei erantzutearren, nik uste dut Parto doktrinak ez diela eragiten bakarrik preso politikoei, baizik eta beste preso batzuei ere aplika dakiela: bortxatzaleei, hiltzaleei... Baino, uste dut ere Parot doktrinaren aplikazioa ez dela ona ez batzuentzat ez besteentzat. Giza eskubideak preso guztiak dituzte, eta horregatik uste dut doktrina hori ez litzaiokeela aplikatu behar inori. Ez nago ados esan duzun horrekin, guri udal bezala ez dagokigula erakunde bat presionatzea edo esatea zein den gure iritzia edo kezka horrelako kasu baten aurrean. Arrazoi berberengatik, Udal hau ez litzateke inor izango Txinari esateko Tibeteko herria errespetatu behar duen edo ez. Guztiz kontrakoa, uste dut horrelako egoera baten aurrean, horrelako astakeriak aplikatzen direnetan, udalak, herritarrengandik hurbileneko erakunde bezala, badelako nor esateko horrelako neurriak aplikatzea ez duela justifikatuta ikusten. Eta, bestalde, uste dut baietz, momentu oso bereziak bizi ditugula, batzuk ari direla urratsak ematen, eta beste batzuk, aldiz, ez direla hainbeste urrats ematen ari; eta guztiok hasi behar garela urratsak ematen eta mahai baten inguruau eseri bake eta trantsizio fase honi erantzun positibo bat emateko. Gu ez gaude ados doktrina horrekin eta Auzitegi Konstituzionalari eskatzen diogu gehiago ez aplikatzeko.

Cantero jauna: guk aurka bozkatuko dugu ez dugulako nahi udalak esaterik auzitegiari zer egin behar duen, ez gehiago ez gutxiago; uste dugulako Udalak beste zeregin batzuk dituela. Esan dugu Parot doktrina errespetatzen dugula horrela erabaki denean, eta behin betiko erabakia ere errespetatuko dugula. Eta, gero, Estrasburgoko auzitegiak emango duen epaia kasuz kasu aztertu beharko dute estatu honetako auzitegiek, banaka aztertu beharko direlako, ez delako gauza bera, adibidez, bortxatzaketa ugari egindakoen kasua. Ankeratasunari dagokionez, asko esateko egongo litzateke ankerkeriari buruz. Parot doktrina aplikatzea erabaki zuenean, Auzitegi Gorenak ez zuen hutsean erabaki, egoera zehatz batean erabaki zuen. Areago, zigor kode frankista aplikatzea gura da, 1973koa, lanagatik zigorra luditzearena, hau da, juridikoki erregimenaren izpiritua birgaitzen ari gara. Beraz, ankertasunarena, preso politikoena, gu bat ez gatozen analisiak dira. Preso politiko kualitate hori ez dugu aitortzen. Eta, edonola ere, norbaitek arrazoi politikoengatik beste norbati hiltzea edo mehatxatze askoz ere larriagoa da. Beraz, garbi dago analisi horrek bereizten gaituela. Aitorrek komentatu duenaz, izango den epai berria, izango da; baina, iragana hor dago, eta ez bagaude prest memoria historikoaz ahazteko, errepublikako garaiez eta Frankoz, azken urteak ahazteko prest ere ez gaude. Eta, noski, gogoratuko dugu, eta gogoratuko dugu eta ez gara bat etorriko ontasunezko, atseginezko analisiekin, beste alde batea begiratzerakoekin, konplizitate zuzen edo zeharkakoekin.

Alkate jaunak erantzun dio berak esan duena esan duela ez datorrelako bat bere ikuspuntuarekin, baina, bere iritzia errespetatzen duela, eta baita ere ados ez dagoela berak esan duenarekin, arrazoi politikoengatik egindako hilketak larriagoak direla. Esan du berarentzat edozein hilketa dela larria, eta ez duela uste larriagoa denik arrazoi politiko batengatik.

Eztabaida amaitzeko, Urrutia jaunak esan du pozten dela Alkateak hilketa guztiak larritasun bera dutela esandakoarekin, esan duenez, hori ez baitator bat aurreko egunean Laura Mintegik Eusko Legebiltzarrean esandakotik ulertu daitekeenarekin, izan ere, ematen zuen ulertu zitekeela justifikazio bat zegoela arrazoi politikoren bat tartean bazegoen. Eta, Cantero jaunari zuzenduta, esan dio Udalbatzarra uneoro ari dela udalaren eskumenak gainditzen dituzten mozioak jorratzen (horietako batzuk aipatu ditu, esaterako, aurreko puntuaren Tibeti buruzkoa), eta ez duela inolaz ere kaltegarritzat ikusten talde bakoitzak bere jarrera adieraztea; eta zalantzan jarri io Auzitegiak izan dezakeen presioa honelako erabakiengatik.

Eztabaida amaituta, bozkatu egin da, eta Madinabeitia jaunaren eta Arkarazo andrea-ren abstentzioarekin, Cantero jaunak aurka bozkatuta eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideek alde, Udalbatzarrak mozioa onartu du.

14.- GALDE-ESKEAK.

- Urrutia jaunak, EL MUNDO egunkarian horri buruzko zerbaite irakurri duela komentatu ondoren, galdu du ea nola dagoen banderen gaia.

Alkateak erantzun dio Gobernuaren ordezkariak errekurritu egin zuela epaia betetzeko modua, eta instantzia judizialetik “sententzia osorik betetzeko” moduan jokatzeko eskatu digutela. Horren aurrean, esan du, nola jokatu pentsatzen ari gara eta proposamenen bat izandakoan Pertsonal eta Gobernu batzordean emango dela horren berri.

- Cantero jaunak galdu du ea nola dagoen KALERATZEAK STOP elkarlanean sinatu beharreko hitzarmena.

Alkateak erantzun dio Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gipuzkoako abokatuen elkargoarekin eta Psikologoen elkargoarekin batera, hitzarmen marko bat proposatu behar duela, interesatuta egon daitezkeen udalak bertara atxikitzeo. Proposamena jasotakoan, esan du, Gizarte Zerbitzuetako batzordera eramango da, eta bertan gaiari buruzko informazioa emango da eta eztabaidatuko da.

Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura 19:35ean. Eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.

1º.-APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.

Por encontrarla conforme es aprobada el acta de la sesión celebrada el 20 de diciembre de 2013.

Con motivo del acta, el Sr. Urrutia pregunta si las declaraciones institucionales no requieren el voto favorable de todos los corporativos.

Se le responde que se estudiará el asunto y se informará.

2º.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA.

Se informa de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el día 22 de marzo de 2013 haciendo entrega de una copia del extracto de las mismas.

Se da cuenta de forma expresa de las resoluciones que a continuación se transcriben, así como el informe emitido por secretaría-intervención en relación a cada uno de los expedientes.

ALKATEAREN ERABAKIA B13/00228 zenbakiduna.(2013KALI001)

Idazkari-kontuhartzaileak osatu duen Eskoriatzako Udaleko 2012ko Aurrekontuaren likidazioa eta horren dokumentuak aztertu ondoren, eta beraiekin ados egonik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/ 2003 Foru Arauk emandako eskumenak erabiliz, honako hau

ERABAKI DUT

Lehena.- Udalaren 2012ko Aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

| | |
|--|--------------|
| 1.- Diruzaintzako fondo likidoak, 2012-12-31n: | 472.604,64 |
| 2.- Koblatu gabeko saldoak, 2012 -12-31n: | 2.764.833,28 |
| Aurrekontuko zordunak: | 568.859,53 |
| Aurrekontuz kanpoko zordunak: | 2.195.973,75 |
| - Aplikatu gabeko kobrantzak: | |
| 3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2012-12-31n: | 622.3737,09 |
| Gastuen aurrekontuko hartzekodunak: | 349.492,08 |
| Sarreren aurrekontuko hartzekodunak: | 272.881,01 |
| Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak: | |
| - Aplikatu gabeko ordainketak: | |
| 4.- Diruzaintzako soberakin gordina (1+2+3): | 2.615.064,83 |
| 5.- Saldo kobragaitzak: | 323.698,08 |
| 6.- Diruzaintzako soberakin likidoa (4-5): | 2.291.366,75 |
| 7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako soberakina: | 206.403,88 |
| 8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako soberakina (6-7): | 2.084.962,87 |
| 9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza: | 215.379,25 |
| 10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza: (-) | 1.655,13 |
| 11.- Doiketak, diruzaintzako soberakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik | 736.256,95 |
| 12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik: | (-) 1.602,33 |
| 13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12): | 948.378,74 |
